



BALIO PROPOSAMENA

Gure produktua Solar Chip merkatuko produktu berritzaileena eta eksklusiboena da. Izenak esaten duen bezala, chip bat da eta eguzki erradiazioa neurtzeko balio duena. Adibidez, hondartzan zaudela zure lagunekin eta nagikeria ematen dizula krema botatzeko adi egoteak; Solar Chip-ek noiz bota behar duzun esango dizu.



Chip-a erradiazio ultramorearekiko sentsorea du eta mini panel mono kristalinoaz osatuta dago. Honi esker, ez da beharrezkoa zeure chip-a kargatzea; hau da, gure produktua "eco friendly"-a da.



Produktu berritzaile hau borobil forma (Solar Chip eta Solar Chip Fit) edo arrainekoa (Solar Chip Kids) da. Tamainez txikia da, eroso izateko. Hainbat kolore ezberdineko modeloak daude baina gustukoena aukeratu dezakezu.

Gure chip-a binaka saltzen da, bat pertsonaren bainu jantzi edo arroparen aurrealdean jartzeko; eta bestea, atzekaldean. Hasieran aipatu dugun bezala, eguzkiaren erradiazioa neurtzen du, eta abisatzen zaitu krema bota behar duzunean. App batera egongo da lotuta chipa, beraz, mugikorraren app-ak abisatuko zaitu.